

dunak ere s'kin oguzten dutela uste degun ezkerro, itz ofen idazkeran aldakuntzarik ez egitea askotaz ere zuřago da : augatik guk ere antziñatik egin dan bezela, s'kin ogutzi ta idatzi beař degula deritzat.

---

§ IV

## EUSKALZAIN ALA EUSKALTZAIN (EUSKELTZAIN)

(EGUZKITZA EUSKALTZAIN YAUNAK BATZAR BERTARAKO  
EGINDAKO IKERPENA)

Emen erdera lafegi darabilgula norbaitek esan dau : biar beste norbaitek bizkaieroa, asi gareneko, zokondora jaurti dogula esan ez dagian eta nireztat eřezago be baldako, neure eretxi txikař au bizkaieraz azalduko dot.

ġEus ala euz? Euskeldun orok, antziña-antziñatik oraintsu arte, esan daben lez, bere s ta guzti, bego izkin ori : au entzun neban azkenengo batzařean. Ni gora-bera bego : buruko miñik ez dauskula ekařiko ba-neki, *bego betiko* esango neuke; baña bego baño ez diñot, s zirtzil ofek burua berotuko ete dauskun bilduř naz-ta.

ġKal ala kel? Oartxu batzuk egin ezkerro, bigařen izkin oni be, agur egingo dautsat. Euskal (euskel) ala euskara (euskera) lenagokoak diran ġnok ete-daki? Euskara-tik euskaldun eta euskera-tik euskeldun egin zirala ba-genki be, era-tik ara ala ara-tik era egin zan ala biak batera sořtu ziran eta bide banatatik datořtzan ġau be nok daki? Batzuk euskera-tik euskara, beste batzuk euskara-tik euskera eratoři dala diño. Nai betera nai bestera izan dala, itz ofein atzizkiak beste itz askotan darabilguzanak eta erderazko « usanza, modo, manera » adierazten dabenak ete-dira? Eta baldin ba' lira, euskal baño euskel ġobe ez

ete-litzake? Lenengo ta bein ara atzizkia baño bere kide dan era, askozaz be itz geyagotan darabilgu. Bigaŕen : euskaldun diñoen askok be, « euskera ta euskeraz » esan daroez. Euskera ala euskara obetsiko ete-dogu? Ez dakit : baña euskera obestekotan, euskel be obetsi beaŕ geunkela dirudi. Irugaŕen : Euskerearen batasuna urte askotarako lana dala ; lan onetan, geuk nei geunken baño astiroago ibili beaŕ izango dogula edonok daki ; baña oŕetarako bidea artu ta geldi-geldika auŕera joateko asmoa daukagula geure arautegian diñogu. Zein euskelgitara jo nai dogun ebatzi barik dago ; baña baldin euskelgi ori gipuzkera ba' litz, gipuzkoaraŕak « euskera ta euskeraz » esaten dabez ; batzuk euskaldun, besteak euskeldun erabili oi dabe. Gure elburutzat euskera dogula, orain euskara obestea ondo ez legoke ; baña euskara obetsi ezik eta gipuzkoaraŕ askok euskeldun esaten daben ezkeroko senide diran itz biok, aldakuntza barik, leŕoan ipiñi ta bide batetik eroatea ez etelitzake zuuŕago izango? « Euskera » obestekotan, *euskel* be, euskal baño, obetzat daukat.

¿Zain ala tzain? Irugaŕen izkin onetzaz zerbait geyago esan nai neuke. Nire ustez, euskera-izpiakeran (fonetik) l, n, ta r-ren jaŕai ts ta tz askozaz be egokiago da-tortz, euskera-mamiago dira, s ta z baño.

Azkenengo batzaldian emen norbaitek esan eban izpiakerea (fonetikea) *ciencia natural* zala ta beste gure lankide batek erantzun eutsan ; bai, *ciencia natural y fisiológica* », Ezetzik ez diñot ; baña, nire aburu txikaŕez, aboskiñak eurak baño be, onein aztura ta oiturak izpiakeran zeri-kusi geyago dauke. Gure aboskiñak (*organos de la voz*) beste gauza asko lez, azi ta ezi daikeguz eta edozein izkuntza ikasten diñardugun bitartean, ezi egiten doguz. Aboskin oneik, euren ezikuntza-aldian, onetariko edo bestetariko oiturak artu daroez eta gero, oitura baŕiaren jabe egin arte beintzat, abots baterako makuŕ, beste bate-

rako mukef egoten dira; baterako efeztasuna, besterako gaiztasuna eukiten dabe. Edozein oitura bere aufka dagon beste oitura bategaz makaldu ta ezabatu egiten dala orok dakigu; augaitik gaztaroko izkuntza aitzu ez aŕen, beste izkuntza bat edo geyago ikasi dabezanak, euren txikitako izkuntzaren izpiakera bereziari askozaz be gitxiago eutsiten dautse, ugatzean edandakoa bakariŕ dakien enparaauak baño. Aboskiñen oitura onei sendoago eutsi eta izpiakereak oso ta garbiago dirau; oitura oneik aldatuago ta izpiakerea be geyago aldatzeko zorian dagoala ¿ nok ukatu daike?

Beste arlo batzuetan be bai : baña orain esku artean darabilgun onetan batez be, euskerearen joan-etofiak agirian dagoz : batzuetan etxetik auzora, bestietan auzotik etxera ibili da : etxetik auzora joan dan baktxean, sasi artetik dabilan ardiak bere artuleak lez, euskereak be bere izpiakerearen agerpen bereziak itxi ta galdu ditu; auzotik etxerantzean, auzoko izkuntzaren itzak beretzat artu dituanean ostera, auzorantzako ibiltaldian berari egindako irain andi aretzaz zelanbait aspertu nai izan daula dirudi, auzotik artu dituan itz ofei bere izpiakerea ezariaz.

Euskereak auzorantz egindako ibitaldiak, beste askoren artean, ufengo doazan itz oneik argiro darakuskuez : Alzaga, Alzibaŕ, Areilza, Epalza, Elzauŕdi, Malzaga, Zumelzu, Minenza, Gelbenzu, Arsuaga, Leŕzundi, Ondaŕza t. a.

Euskerazko Alzaga, Alzibaŕ, etc., idazteko beaŕ dan izkirik, erdereak ez darabil : erdeldunak eta gure arteko *jakitunak* erdel-erara idatzi ebezan. Gero, ofelan idatzita ikusiaz begiak, entzunaz belariak, bein eta bifiŕtan esanaz aboskiñak be oitu ziran, eta aspaldi onetan euskeldun askok, erdeldunik onenak beizen eŕez eta ondo (txaŕto esan nai dot) itz ofeik eta beste ofelako asko auzebagi ta esaten dabez. Itz oneik eta euren antzeko beste

enparauak, euskel-izpiakerearen aufka dagozala zetan esan be ez da. Norbaitek itanduko ba-leust zergaitik euskeldun batzuk « galtzuzkuí »-en ordezt galtzuzkuí eta geyago dana, galtzoíatz-en ordezt galzoíatz, bultzaka-ren ordezt pulzaka idatzi ta esan daben, oíen zegaitia ausaz ementxe dagola erantzungo neuskio : bein aboskiñak onetara oitu ezkeru, galtzoíatz-en ordezt galzoíats esatea, txorientzat egaz-ibiltea beizen eíez da.

I. Euskereak erderatik artu dituan itzak, euskeldun erdeltzalien ago ta ezpanetan aldatu ziran ala ez ezin esan daiket; gaurko euskeldun-erdeldunai entzunik, itz asko beintzat ez zirala aldatu dirudit; baña euskeldun utsakana eldu ziranean, oneik agiña ezafi ta euskerearen-izpiakerea aferazo eutsen. L-ren jaíai egozan s ta z aldatu ta ts, tz egin ebezan : altzau, altzatu, altzaía, boltsa (moltsa), kaltza, galtza, galtzagoíi, galtzerdi, galtzoíatz, galtzoin, galtzada, kaltzada, etc...; maltso (mantso), kultsu, pultsu, pultso, pultsera, saltsa, saltsatu, saltzedo t. a.

N-ren uíengo egozanak, baídin : Amantzio, asentsio, asentziño, antsar, balantza, kontzeju, kontseyu, kontsolau, dantza, dantzari, dontzella, Frantzizko, lantzean bein, lantzeta, mantso, ontza, ontzako, pensu, pensau, pensatu, sentzu (zentsun), trentza, trontza-sefa, puntziño, kontzientzi. induljentzi, penitentzi t. a.

R-ren ostekoak, orobat : bertso, bertsolari, Diburtzio (Tiburtzio), gartzela, kartzela, mortzillak, partsoneru, pertsona, Mertzedes, Mertzedeko, tertza, tertzio, tortzidu, zertzeta t. a. Erderaz diarduenan be « por entzima, por puertza ta olakoak esaten dabez.

L, n ta r-ren jaíai ts ta tz-ren abots oneik euskereak bere-bereak izan ezpa' litu, itz oíein s ta z, aldatu dituan lez, ez ebazan aldatuko.

II. Euskel-itzak be bide onexeri jafaitu dautse. Euskal (euskel)-en l au lenago r izan ei-da. Orain esku artean darabilgun auzi onetarako, r-ren aldakuntza izan nai ez izan, aenbaten dala deritxat; baña bardin ezpa' litz be, aitatuko dodazan itzik geyetan aldakuntza orixe egin da-ta, arira datortz.

L-ren ufengo : altzi (ari-zi) altzai (ari-zai), athaltzain, athaltzaingo (atari-zain), galtsaratu (gari-saratu), galtsaraldi, galtsarapen, galtzuztar, galzuzkur eta galtzuzkur (galzuri) galtzuri, galtxuri, galtzu, galtzuardatz, galtzuondo, galtzondo (Itz bikotxetan « zur »-en ordez zu darabilgu : zume, zumitz, zumintz, zuaitz, zubil, zuil; augaitik galtzu, gari-zu dala naiko argiro dakusgu) biltzale (biltzalle), saltzale (saltzalle), askaltzale, barazkalzale, ebiltzale, philtzar.

N-ren ostean : ardantzale, arantzale, artzaintzakur, burduntzi (buruntzi, burduntzali, fufuntzale, gantziri, gantzol, gantzolatu, lantzale, lantzar, lantzaro, lantzute, lantzutu, ontzale, seintzain (sentzain), zaintzail, arantzuri, buruntzaki, buruntzi, buruntzigei, eskintsari, ezkontsari, ezkontzor, irentsari, olentzaro, onentzaro, oihantzain, pintzindor, xalantzain, urdantzaki, zaintxuri, zintzil.

R-ren jafai : artzabal, burtzoratu, burtzoro, burtzoraldi, kartsoil, kartzoil (karsoil), kurtzuri (kuru-zuri), kurtsulu, martzal (B-ond.)mazal, pirtzil, zirtzil, zartzaro, bartzun, burtzil, burtzol, burtzoradura, burtzora-gafi, burtzorokeri, burtzoroki, burtzoratasun, burtzuol, igortzale, igortzeri, ipurtzilo, irurtziri, purtzil, surtzilo.

III. Aditz-jokoan beste onenbeste dakuskegu : ¿non zabilte? or dabilta; dabiltzanai, dabiltzanean; or ebiltzan; alkarfen kontra elean zebiltzala : nintzan, zintzan(zan) gintzazan; kartzu (ekartzu), ekartzazu, dakartzun, yatoftuz. Eta itz biren artean be auxe egiten dabe

euskeldun askok, itz biok alkartu ta bat balitzan, esaten dabezanean : « iltzan (il zan) egontzan, alpertziran. Makil ori zuritzeko suan zerbeltzak. » Itz biren arteko aldakuntza oneik idazteari ondo ez deritxot; baña itz bañuko izpiakerea ezagutzeko, alagalakoak dira. Izkiñak alkañekin ondo lotuta, bizkoñ esan edo ez esan, alde anditxua dago : cal-za-da, don-ce-lla, per-so-na (izkiñak azkatuta) erdel-dunik onenak beizen ondo esaten dabezan euskeldun askori, izkin oñeik alkañtuta bizkoñ esanazoten ba-yakez, eurak nai ez dabela be, kaltzada, dontzella, pertsona izango dira; baña itz birenak baño, itz bakotxaren izkiñak estuago lotu ta bizkoñago esan beañ dirala edonok daki; augaitik itz biren arteko izpiakera onek, itz bañukoa zein dan argiro darakus.

IV, Azkenez, Iztegia pizka bat azteñtu ezkerro, auxe dakuskegu; euskel-itzetan l, n ta r-ren jañai ts ta tz askozaz be ugariago dagozala s ta z baño. Eta au, ez bakañik azken-aldean : altz, auntz, giltz, oltz, gantz, mintz, ortz, zurtz t. a.; baita itzen erdiko izkiñetan be. Egiz, Azkue Jaunaren Iztegian itz asko bietara idatzita dagoz; baña beste askok l, n ta r-ren, jañai ts, tz bakañik dauke : augaitik euskel-izpiakeran aitaturiko izki (abots) onein ostean ts ta tz egokiago dagozala deritxat s ta z baño ta beraz, euskaltzain (euskeltzain) euskaltzain baño euskera-mamiago dala uste dot.

Orain euskeltzain-buruak bere ikerpenean diñoanari zerbait erantzungo dautsat. Gure mintzai eder onek-diño-onelako gertaldietarako lege bikoitz bat du. Ona bata : edozein muñ-ulketak aldakuntza eskatzen du, baldin agots ulduaren uñengoa aldakizun bada, Erderaz : la supresión de un fonema orgánico exige permutación, siempre que el siguiente al elidido sea permutable. Gure fone-

tika legeetan tz, ts-ren ufengo agotsak, bodega-koak badira, petakako itzultzen dituzte, berak t galduz ; « onelan, azpeiti, azkoiti, azpe, arizpe t. a.

Itz oneitan eta onelako beste askotan t uldurik, ufengo datozan b, d, g, geyenez beintzat, p, t, k, egiten dirala egia da ; baña bigařen aldakuntza onen zegaitia, lenengo ulketa ori dala ez deritxat.

Lege oren orde, atal biko beste lege au idatziko neuke ; Lenengo atala : edozein abotsen ulketak beste abots baten ulketea dakař, bigařen abots onen zegaitia lenengo abots uldua danean. Erderaz : La supresión de un fonema motiva la supresion de otro, siempre que la presencia del primero en el vocablo haya sido causa del segundo « *Sublata causa, tollitur effectus* » Bizkai-ko efi askotan zabiltz, zabiltzen orde, zabiz, zabixe esaten doguz : uldu zan l ta tz-ren t be nunbaitera joan zan. Bigařen atala : abots baten ulketeak, berenez eta beste ezer bitarteko ez dala beintzat, len aitaturiko ulketa ori baño besterik ez dakař eta aldakuntzaren zegaitia ezin esan daiteke. Beste ulketarik ez dakař, lenengo atalean aitaturiko abotsak alde batera itxi ezker, uldu dan abots ori beste enparauen zurkaitz ez dala izan autortzen dogu-ta. Aldakuntzaren zegaitia be ezin izan daiteke. Uldu dan abotsa itzean ez dago : ez dagoan tokian ezertxu be ez da ; baña ezerezak, berez, zerbait dan gauzarik ezin daike eta aldakuntzea zerbait da. Erderaz : la supresión de un fonema no provoca directamente ninguna otra supresión (fuera de la mencionada en la primera parte) ni es por sí misma causa de permutación alguna. No provoca ninguna otra supresión, porque, en este supuesto, los demás fonemas en nada dependen de él. Tampoco puede ser causa de permutación, porque no formando ya parte del vocablo, su influencia en él es nula ; la influencia de lo no existente, de la nada ; pero la nada no puede ser causa de nada

positivo, como es una permutación<sup>1</sup>. Añantzale, sentszain esaten doguz; lenengo atalaren i uldu da; bigařen ataleko z be tz egin da, aldatu da; baña aldakuntza onen zegaitia ez da i-ren ulketa ori, bertan diraun n baño. Balanza, danza, lanza, manso, onza ta beste askok ez dabe izan i-ren ulketarik; baña euskeldunen ago-ezpanetan balantza, dantza, lantza, mantso, ontza egin dira.

Dana dala, euskalzain nai euskaltzain-ekin lege onek zer-ikusirik ez dauko. Onen legea-diño-Azkue Jaunak-beste au degu. Aldakuntza batek eztu aldatzen ufengo agotsa au aldakizun izan ařen. Erderaz : Una permutación no exige otra, aunque el fonema contiguo sea capaz de ser permutado ». Lege au ¿zeatza ete-da? Nire eretxi labuřean, ez. Bestera ba'lego : aldakuntza batek ufengo abotsa aldatzen du, au aldakizun izan ezkerro; onelan ba'lego be, zeatza ez litzake izango, eřena baño. Erderaz : una permutación no exige otra, aunque etc; esta ley, a mi ver, no es exacta : altzain, athaltzain, galtzuztar, galtzaraldi etc dan testimonio de ello. Si en vez de « no exige » dijera lo contrario, sería también inexacta; abelburu, abelgoři, elgoři, *euskaldun* etc proclaman sn inexactitud.

Aldakuntza batek ufengo abotsa ¿aldatzen ete-dau? Aldakuntzaren ostean, batzuetan ufengo abotsa aldatzen da; beste batzuetan, ez. ¿Zergaitik ori? Bigařen aldakuntzearen zegaitia lenengo ori *berez* ez dalako aldakuntza onetatik datořen abots bařia baño. Abots au, here ufengo ezartzen yakonaz aizkide danean, bigařen aldakuntzarik ez dago; baña beragaz batu ta lotu nai dogun abotsa, here lagun izan ezik, lagun ori idoroteko bigařen

1. Abotsen bat kentzen danean, igedin bi auřez-auř saři aurkitzen dira. Alkař jote au dala-ta, bai, bein baño sařiago lenengo igediña uldu ta bigařena gogořtu egiten dira; baña onetzaz beste bein zerbait diñokegu.



aldakuntza egiten dau. Erderaz : Tras una permutación a veces, viene otra segunda; a veces, no. La razón de esto está en que la segunda permutación no depende precisamente de que haya precedido otra, sino de la naturaleza del fonema, término de la permutación. Cuando este fonema simpatiza con el que le queremos agregar, no hay segunda permutación; pero si el fonema con el cual ha de juntarse, le es antipático, generalmente suele permutarlo.

Augaitik esan dot auferago euskaldun-en l ori r-ren aldakuntza izan nai ez izan, esku artean darabilgun auzi onetarako aenbaten dala. L onen abotsa, r-ren aldakuntza izan nai ez izan, bardin-bardiña da; abotsa bardiña izan ezkeru, aboskiñen gerkun eta igikunak be, r-ren aldakuntza danean eta ez danean, bardiñak izan bea; baña gerkun eta igikun bardiñak, ondore bardiña dakafe.

L ta n *bodega*-ko igedinakin aizkide bañuko dira; bein baño sañigo *petaka*-ko p, t, k, *bedega*-ko b, d, g, egiten dabez; onelan, abelburu, abelgoñi ta enparau geyenok lenengo aldakuntza bai, baña bigañenik ez dauke; bigañen aldakuntzau abelpuru, abelkofi etc, egin ba'litz, benetan gauza añaña izango zan!

L, n ta r *bodegaren* igedin oñekin lez, s ta z-gaz aizkide ba-lira, zer esanik ez legoke; baña auferago aitatu dodazan itzak (erderatikoak ez euskerearenak) l, n ta r batetik eta s ta z bestetik euskel-izpiakeran aizkide ez dirala argiro darakuskue : augaitik, Azkue Jaunak beste zerbait erabilan here buruan, ufengo itz oneik idatzi ebazanean : Eñiak euskaltzain, euskaltzale esango balu, euskaltun, euskalkaitz, euskalkaizto erabiliko liluke.

« Aipaturiko gertakari orietan beñogeñi ta bat dauzkagu euskaltzain aldekoak : euskaltzain-arenak lau bazik ez; geyenez host ». — Nire ustez aitatzen dozuzan itz oñetatik arira datozenak, onexek bakañik dira : abelzain,

zamalzain, alzai athalzain, atalzakur, athal-zapata, galzofi, galzuri, galzikin, galzuzkur eta euskalzale; baña zeure Iztegian bertan *be*, alzain eta altzain, altzaingo; athalzain eta athaltzain; galzuri ta galtzuri, galtxuri; galzikin eta galtxikin, galtxizkin; galzuzku<sup>r</sup> eta galtzuzku<sup>r</sup> dakustaz; atal-zaku<sup>r</sup> eta atal-zapata, itz baka<sup>r</sup>á egi-teko eran ez dira alka<sup>r</sup>ekin batu (son voces formadas por yuxtaposición, no por composición). Euskalzain-en aldekoak ¿zenbat gelditzen dira, ba? Lau : abelzain, zamalzain, galzofi, euskalzale. Eta lau itz oneik *be*, e<sup>r</sup>iak o<sup>r</sup>elan esaten ete-ditu? Gure e<sup>r</sup>ita<sup>r</sup>en batzuk-edo-batzuk o<sup>r</sup>elan esatea ta e<sup>r</sup>irik geyenak o<sup>r</sup>elan esatea, gauza bi dira. Eta atal bi o<sup>r</sup>eikin itz baka<sup>r</sup>á egin eta itz baka<sup>r</sup>á lez esan ala ez esan *be*, nire ustez, ez da bardin : sagarbila, dirubila esaten dogun lez, ardao-zale, mamin-zale, kuzkur-zale *be*, alka<sup>r</sup>en ja<sup>r</sup>ai bai, baña alka<sup>r</sup>ekin ondo lotu barik, erdiko gelunetxuz, sa<sup>r</sup>i entzun ditut. Euskalzale e<sup>r</sup>iari ez dautsat i<sup>n</sup>oz entzun; euskeltzale, *bez*. Euskalzale esaten ei-dau. Ez di<sup>n</sup>ot ezetz; baña e<sup>r</sup>iak landuriko itza ba<sup>n</sup>o (mas que palabra trabajada por el pueblo) i<sup>n</sup>ok e<sup>r</sup>iari irakatsitako itza geyago dirudi. Dana dala, e<sup>r</sup>iak itz o<sup>r</sup>eik o<sup>r</sup>elan esaten dituala egia ba<sup>r</sup>litz *be*, euskaltzain (euskeltzain)-en alde dagozanak, geyago dira.

---

§ V

## IRUGAREN TXOSTENA

(EUSKALTZAIN BERAK BATZAR BERTAN EGINDAKOA)

Euskal-izpiakeran *s* ta *z*'ren ja<sup>r</sup>ai *p*, *t*, *k*, egokiago dirala dirudi *b*, *d*, *g*, ba<sup>n</sup>o. Egiz *s* ta *z*'ren ja<sup>r</sup>ai dato<sup>r</sup>tzan

1. Ikus gorago : Oa<sup>r</sup> batzuk geiga<sup>r</sup>itzat, 3 ga<sup>r</sup>en oa<sup>r</sup>a.